



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## **EBAZPENA**

### **Tarifa fiskal lauaren kuoten ordainketa**

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariaren 2018ko azaroaren 21eko ebazpen baten bitartez, “Tarifa fiskal laua” ordainketa-sistema ezarri zen, aldiari behingo epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zerga eta tasak kuotetan ordaintzerik izan zedin 2019tik aurrera.

“Kuotak zehaztea eta galdatzea” atalean adierazten zen hamar kuotatan banatuko zela zor osoa, martxoaren 20an ordaindu beharko zela lehena, eta hurrengoak, berriz, hilabetez hilabete, hilaren 20an, eta, hartara, sortzen zen ekitaldi berean ordainduko zela zor osoa.

Udalbatzaren 2019/12/18ko erabakia zela medio —2019/12/27ko ALHAO, 148. zk.— aldatu egin zen Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 70.6 artikulua, eta paragrafo hau gehitu: “Hil bakoitzeko 30ean gauzatuko da ordainketa, egun balioduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliodunean.”

Horrenbestez, alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretuaren bitartez neure gain utzitako eskumenak baliaturik, hauxe xedatu dut:

**Hil bakoitzeko 30ean gauzatuko da tarifa fiskal lauaren kuoten ordainketa, egun balioduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliodunean.**

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 7an.

**OGASUN SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA**  
**Iñaki Gurtubai Artetxe**